

Arantxa Uribe

HIK HASI-KO KIDEA

Zer da Euskal Herria?

Euskal Curriculumaren inguruko eztabaida puri-purian dago. Beste alor batzuetan gertatzen den antzera, hemen ere bi proposamen daude mahai gainean, eta horrek jendartean zegoen nahasmena areagotu du. Isabel Zelaia PSE-EEko Hezkuntza arduradunak EAeko Hezkuntza Sailak aurkeztutako curriculumaren inguruan esandakoak eztabaidari argia jaurtitzen diolakoan nago.

Zelaak txalotu du Hezkuntza Sailaren proposamena Espainiako Hezkuntza Lege Organiko LOEri eta legaltasunaren printzipioari egokitu zaiolako. Pozgarria iruditu zaio zirriborroak ez jasotzea Euskal Herria bi estatutan banatuta dagoela dioen aipamenik. Ez du egokia ikusten Euskal Kultura euskararekin soilik lotzea eta gartzelania ere euskal kulturarekin lotu beharra adierazi du. Orain aurkeztutako hori PSEk berak Fernando Buesa Hezkuntza sailburu zenetik egindako curriculumen jarraipena dela gaineratu du.

Eta galdera bat plazaratu du: Zer da Euskal Herria? Era berean, dekretuak behin betiko "Euskal Herria" terminoaren erabilera ofiziala argitzeko eskaria luzatu du. Bat egiten dut Isabel Zelaarekin, eta arazoak edo desadostasunak daudenean horiei heltzeko bide egokia eta zuzenena alde bakoitzak bere posizioak eta kontzeptuak argi definitzea dela uste dut. PSEk egin du: Kultura Sailarekin adostutako



Argi hitz egin aldera,
Euskal Herria edo euskaldunon
herria bi estatutan banatuta
dagoela alde batera utzi nahi
izateak errealitatea ezkutatzeko
nahia adierazten du



lege guztietan Euskal Herriaren ordean, Euskal Autonomia Erkidegoa edo Euskadi kontzeptuak erabiltzen dituzte.

Euskal Herriko Oinarrizko Hezkuntza Akordioan ere egina dago: Euskal Herria 21.000 kilometro koadroko orubea da, 3.000.000 biztanlez eta 685 udalerriz osatua. Gainerakoak argitzeko dute zertaz ari diren zehazki Euskal Herria esaten dutenean.

Hori argitzea abiapuntu ona litzake curriculum bakoitza aztertzen hasteko, jakiteko bakoitza norentzat egina dagoen, zein euskaldun aintzat hartzen duen eta zein ez ikusteko; ea ikuspegi politiko-administratiboan oinarritzen den ala ikuspegi sozio-kulturala lehenesten duen.

Posizioak gehiago zorrotzu eta argi hitz egin aldera, gaineratu nahi dut Euskal Herria edo euskaldunon herria bi estatutan banatuta dagoela alde batera utzi nahi izateak errealitatea ezkutatzeko nahia adierazten dituela. Eta horrek ezer gutxi laguntzen duela bizi dugun katramila horretan aurrera egiten. Zeren nork uka lezake euskaldunak zatiturik egon bagaudela?

Guk, Euskal Herriko Oinarrizko Hezkuntza Akordioak jasotzen duen ildotik, zatiketak gainditu eta jendarte kohesionatu baten alde lan egiten dugu, ez zatiketak betikotzearen alde. Eta hori ere argi esan nahi dugu! ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Hondarribiako aireportua. Luzatu nahi zuten.

Ez zuten ahantzita

Zabaldu. Hitz batez esanda, handitu. Inguru hurbilekoak, afektatu zuzenenak aurka altxatu ziren gizalegez. Bilkurak, protestak eta haserreak kateatuak. Irungo eta Hondarribiako udaletxeak, bertako alkateak irudi, proiektuaren aurka agertu ziren. Argi zegoen. Eta hara non, AENA Espainiako aireportuen kudeatzaile eskusiboak mehatxua bota du, lurreratze pista laburtzeko asmoa duela iragarritz. Aitzakia, seguritatea. Beraz, orain artean lurreratze hegazkinen suertez ez dute muturrez pistako porlana jan, ez dute ingurua xehatu. Berrito ere han-

ditzearena plazaratu da, musean ari bailiran. Eta orain Santano Irungo alkatea

AENAREN hordagoak beldurtuta aurreneko proiektuaren alde agertu zaigu. Bakartu egin ditu hondarribiarrak. Karta kaskarrekin jokalaria abilena ere, galtzaile. Nekez lortu dezakete ingurukoek hordagoari aurre egitea. Eta nago, Zubietako erraustegia eta Pasaiaiko portua izanen direla hurrengo jokalaria, ez handi, ez txiki, pare eskasak eta jokorik ezean mahairatuko dituztenak. Madrilek banatzen ditu kartak eta Gasteiz da epaile. Eta jokalariei gizalegez joko onartzea eskatzen zaie, zorte txarrekoak direla sinetsi nahiaraziz, hotsik gabeko adar-jotzean. ■